
NAPARROA

Deuna'ren eleizara. Bilbao'n geratzen gara beste bide bat azaltzeko.

II.– ERMUA TA OTXANDIO'KO BIDEA

Bide au Gipuzkoa'tik etorren eta arresi ona eukan Ermu'ra sartzen zan. Emen Barroko -tankerako iruditegi eder bat ikusi eikeen, Donejakue mauroen iltzaillea. Gero Berriz'tik Abadeño'ra, Torkatz deunaren eleizara. Ortik Durango'ra: mendi zorrotz ederrak, gaiso-etxe aundia, Mexiko'ko Gotzain izandako Frai Juan de Zumarraga, eleizpe aundia daukan Uribarri'ko Ama'ren eleizea ta irudia, Bizkaia'n zarrena dan Tabira'ko eleizea, Santa Ana'ko ate-ederra, eta torre ospetsuak: Agirrebengoa, Ampuero, Lariz, 011ade, Zabala. Eta da amaitzeko, erromesentzat Kurutze Ederra, XV gizaldikoa.

Eta Durango'tik Amorebieta'ra: Gotiku tankerako eleiza ederra. Eta ortik Galdakano'ra. Emen Andra Maria'ren irudia, erromaniko tankerakoa, eta eleiza ederra.

Gipuzkoa'tik zuzenean beste bide bat Otxandio'ra sartzen zan eta emendik Zeanuri'ra. Emen ba-euken Donejakue'ren eleiza eder bat Ipiñaburu'n. Emendik Areatza ta Arteaga'ra. Erri onetan ostatua ta gaiso-etxea eukezan. Gero Arantzazu ta Igorre'tik Lemona'ra emen Ermu'tik etorren bideagaz bat egiteko.

III.– BILBAO

Atxuri'tik sartzen ziran Bilbao'ra zubi-ondoan egoan San Anton'era eltzeko. Uri onetako bigarren parrokia da au. 1433n.urtean egiña Gaur Lan-Ikastegia dagon lekuan gaiso-etxea egoan eta ondoan San Juan Parrokia ta illerria. Gero aldatu zan San Juan orain dagon lekura. Erromatarren aldikoa zan bide au igarota, zazpi kaleetara sartzen ziran eta emen Santiago'ren eleiza ederrera. Oraintsu barriztatu dabe egokiro. Antxiña ermita txiki bat zan.

IV.– KAIK

Erdi-Aroan Bermeo'ko kaia zan nagusi Bizkaia'n eta emendik sartzen ziran erromesik geieneak, Bermeo'tik bide bi egozan jarraitzeko, bata Bakio'ko San Pelaio'tik, (Arresi-ondoan ba-dagoz zidurriak) emen gaiso-etxea egoan, eta gero Zumetxa'tik Mungia'ko. Santa Marine ra, emen Kepa Deuna'ren eleizea, 1150n. urtean egiña, Billela'tarren torre-etxea, gero Laukariz'ko Santiago eta Derio'tik Bilbao'ra. Ber-

meo'tik urteten eban beste bidea, Mundaka'ra joian, gero Busturi'ra, Murueta ta Foru'ra eta Gernika'ra: XIV gizaldiko eleiza ederra, Batzar-etxea. Emen bat egiten eban Markiña'tik etorren bideagaz eta Aretxaba-la'ganetik Larrabetzu ta Lezama'tik, Artxanda ta Begoña igaro eta Kristo ta Sendeja kaleetatik, San Nikolas igaro eta Santiago'ra sartzen ziran.

Garrantzi gitxiago ko kaiak ziran Bakio, Algorta, Portugalete ta Bilbao.

V.– BILBAO'TIK KANTABRIA'RA

Leorrez naiz itxasoz etozanak, Bilbao'n alkartzen ziran. Urteteko batzuk artzen eban bidea au zan: Santiago, San Frantzizko, Olabeaga, Zorrotza, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Trapagaran, Zierbena. Eta Kantabria'n Onton. Gero Obiedo, Lugo, Koruña.

VI.– GAZTELA'RA

Beste bide bat Bilbao'tik urten eta Basauri'tik Arri-gorriaga'ra joian eta emendik Ugao, Arrankudiaga, Luiando ta Amurrio'tik Orduña'ra. Atxaren gaiñean iturri bat egoan eta ondoan gaiso-etxe bat. Bidea ortik Pankorbo'ra eta an aurkitzen eban Donejakue-bide nagusia.

Gaztela'ra sartzeko ba-egoan beste bide bat be: Basurtu'tik Kastrejana'ra eta gero Alonsotegi, La Kuarda, Sodupe ta Gueñes'era eta gero Zalla'tik Balmaseda'ra. Au eban Bizkai'ko azken-erria eta Mena ibarra igaro ondoren Villarcayo'tik Bibar del Zid'era eta emen inguruan artzen eban Donejakue Bide Nagusia.

AMAITZEKO

Bizkai'ra kanpotik etorten ziran erromesak, baiña berton be sartzen zan jentea ekintza orretara, Konpos-tela'n beti egoten zan autor-entzule bat euskerea ekia-na, emengoen autortzak entzuteko. Emendik joiazan bideen ezaugarri doguz erromaniku -tankerako ainbat eleiza, bertokoak egiñak, eta orrek diñosku emen ba-egoala Donejakue-Bidearen zaletasuna. Baiña jokera onen edestia oraindiño idatzi barik daukagu. Agertuko al da ainbat lasterren.

OLAZAR'TAR MARTINE'EK